5914

EBAZPENA, 2008ko urriaren 6koa, Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiko zuzendariarena, Ogasun eta Herri Administrazio Saileko Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeari honako hau eskuordetzekoa: Euskal Herriko Poliziaren Ikastegia erakunde autonomoaren menpeko administrazio-zentroak 2009. urtean energia elektrikoz hornitzeko kontratazioa. KM/2009/007 espedientea.

Energia Elektrikoari buruzko azaroaren 27ko 54/1997 Legean arautu egiten dira energia elektrikoz hornitzea helburu duten jarduerak, alegia, batasunaren barruko nazioarteko sortze-, garraiatze-, banatze-, komerzializatze- eta elkartrukatze-jarduerak, eta, halaber, sistema elektrikoaren kudeaketa ekonomikoa eta teknikoa.

Lege horretan enpresa komertzialitzaileei esleitzen zaie kontsumitzaile kualifikatuei energia elektrikoa banatzeko eginkizuna.

Sektore Elektrikoaren Legeak elektrizitatearen horniketa liberalizatzeko aukera eman du. Horrek dakarrena da, administrazioek energia iturri horiek erosiz gero, administrazio kontratazioari buruzko arauetan aurreikusitako prozedurei jarraiki erosi beharko dituztela.

Euskal Autonomia Erkidegoko kontratazio araubideari buruzko ekainaren 5eko 136/1996 Dekretuko V. kapituluan eta lehenengo xedapen gehigarriko 2. puntuan xedatutakoaren arabera, Ogasun eta Herri Administrazio sailburuordeari dagokio kudeaketa zentralizatuko eraikinetarako erabilpen orokorreko arloak edo zerbitzuak kontratatzea, betiere Baliabide Orokorren Zuzendaritzari egotzi bazaizkio.

Ogasun eta Herri Administrazio Sailaren egitura eta eginkizunak ezartzen dituen otsailaren 28ko 42/2006 Dekretuko 9.a.4 artikuluak aipatu zuzendaritzaren esku uzten du erosketa zentralizatuko ondasunak eta zerbitzuak kontratatzeko prozedurak garatzeko proposamena.

Ildo horretatik uste da zenbait eraikin energia elektrikoz hornitzeko kontratazioa espediente bakar batean egiteak zerbitzuen kudeaketa hobetu eta gastua arrazionalizatu egiten duela, hala Baliabide Orokorren Zuzendaritzaren menpeko kudeaketa zentralizatuko eraikinak, nola Lehendakaritzaren eta Justizia, Lan eta Gizarte Sailaren, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren eta Herrizaingo Sailaren eta Euskal Herriko Polizia Ikastegiaren menpeko eraikinak.

5914

RESOLUCIÓN de 6 de octubre de 2008, de la Directora de la Academia de Policía del País Vasco, de delegación en el Viceconsejero de Administración y Servicios del Departamento de Hacienda y Administración Pública de la contratación del suministro de energía eléctrica para el año 2009, en los centros administrativos dependientes del Organismo Autónomo Academia de Policía del País Vasco. Expediente: KM/2009/007.

La Ley 54/1997, de 27 de noviembre, del Sector Eléctrico, regula las actividades destinadas al suministro de energía eléctrica, consistentes en su generación, transporte, distribución, comercialización e intercambios intracomunitarios internacionales, así como la gestión económica y técnica del sistema eléctrico.

La mencionada Ley otorga a las empresas comercializadoras la distribución de energía eléctrica para el caso de consumidores que tengan la consideración de cualificados.

Por otra parte, la Ley del Sector Eléctrico ha permitido la liberalización del suministro de electricidad, lo cual implica que las adquisiciones de dichas fuentes de energía por parte de las administraciones deben realizarse a través de los procedimientos previstos en la normativa sobre contratación administrativa.

A tenor del Capítulo V y de la Disposición Adicional Primera 2 del Decreto 136/1996, de 5 de junio, por el que se aprueba el régimen de la contratación de la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi, corresponde la Viceconsejero de Hacienda y Administración Pública la contratación en edificios de gestión centralizada de las materias o servicios de utilización generalizada que hayan sido atribuidos a la Dirección de Recursos Generales.

Además, el artículo 9.a.4 del Decreto 42/2006, de 28 de febrero, por el que se establece la estructura y funciones del Departamento de Hacienda y Administración Pública, otorga a la mencionada Dirección la propuesta de desarrollo de los procedimientos para la contratación de bienes y servicios de adquisición centralizada.

En este sentido, se considera que la contratación en un único expediente del suministro de energía eléctrica de los edificios de gestión centralizada de competencia de la Dirección de Recursos Generales y de determinados edificios dependientes de la Lehendakaritza y de los Departamentos de Justicia, Empleo y Seguridad Social; Educación Universidades e Investigación, e Interior y del Organismo Autónomo Academia de Policía del País Vasco / Euskal Herriko Polizia Ikastegia, contribuye a la mejora de la gestión de los servicios así como a la racionalización del gasto.

136/1996 Dekretuaren 19. artikuluak aukera ematen du Baliabide Orokorren Zuzendaritzaren eskumenak kudeaketa zentralizatuko eraikinez bestekoetara hedatzeko. Hitzarmen bidez, administrazio klausula zehatzen pleguetan aurreikuspen berariazkoa ezarriz edo Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legean jasotako formulen bidez gauzatuko da hedapen hori.

Energia elektrikoaren horniketa -lehen aipatu eremuan- espediente bakar batean kontratatu ahal izateko formularik egokiena Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 13.1 artikuluan -eskumenen delegaziorako- jasotakoa da, honakoa xedatzen baitu:

«1. Herri-administrazioetako organoek beste organo batzuei beren eskumenak eskuordetzan eman diezazkiekete, organo horiek administrazio berekoak ez direnean, nahiz eta bata bestearen mendekoa ez izan, edo administrazio horiei lotuta edo administrazio horien mendean dauden zuzenbide publikoko erakundeetakoak badira.»

Horiek horrela, hau

EBATZI DUT:

I.– Ogasun eta Herri Administrazio Saileko Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeari eskuordetzea eranskinean agertzen diren Euskal Herriko Poliziaren Ikastegia erakunde autonomoaren menpeko eraikinak 2009. urtean energia elektrikoz hornitzeko kontratazioaren eskumena.

Administrazio Publikoen Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legean jasotako honako arlo hauetara hedatuko da eskuordetza, kontratuari aplikatu beharko baitzaizkio:

– Kontratuaren prestakuntza (II. liburua).

– Kontratuaren esleipena (III. liburua, I. titulua, I. kapitulua).

– Administrazioaren onurabideak, kontratuaren aldaketa, iraungitzea, lagatzea eta azpikontratazioa (IV. liburua, I. titulua, I. kapitulua) eta bereziki horniketa-kontratuentzat (IV. liburua, II. titulua, IV. kapitulua).

– Kontratua formalizatzea (III. liburua, I. titulua, I. kapitulua).

II.– Kontratazio organoari dagozkion bestelako eskumenak, bereziki emandako zerbitzuen burutzapenari onespena ematea eta horien ordainketa agintzea, organo eskuordetzailearen esku gelditukо dira.

El artículo 19 del Decreto 136/1996, anteriormente mencionado, permite la extensión de las competencias de la Dirección de Recursos Generales a otros edificios distintos de los de gestión centralizada. Esta extensión se instrumentaliza por medio de convenio, previsiones específicas en los pliegos de cláusulas administrativas particulares o de las formulas previstas en la Ley de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

La formula apropiada para llevar a cabo en un único expediente la contratación del suministro de energía eléctrica en el ámbito antes señalado, es la prevista para las delegaciones de competencias en el artículo 13.1 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, que dispone lo siguiente:

«1. Los órganos de las diferentes Administraciones públicas podrán delegar el ejercicio de las competencias que tengan atribuidas en otros órganos de la misma administración, aun cuando no sean jerárquicamente dependientes, o de las entidades de derecho público vinculadas o dependientes de aquéllas.»

En virtud de lo anteriormente expuesto,

RESUELVO:

I.– Delegar en el Viceconsejero de Administración y Servicios la competencia para la contratación para el año 2009 del suministro de energía eléctrica en los edificios dependientes del Organismo Academia de Policía del País Vasco, que figuran en el anexo que acompaña a la presente Resolución.

La delegación se extenderá a las siguientes materias previstas en la Ley 30/2007, de 30 de octubre, de Contratos del Sector Público, que sean de aplicación al contrato:

– Preparación del contrato (Libro II).

– Adjudicación del contrato (Libro III, Título I, Capítulo I).

– Prerrogativas de la Administración, modificación, extinción, cesión y subcontratación previstas con carácter general en el Libro IV Título I, Capítulo I y con carácter particular para los contratos de suministro en el Libro IV Título II, Capítulo IV).

– Formalización del contrato (Libro III, Título I, Capítulo I)

II.– El resto de las competencias que corresponden al órgano de contratación, y en particular la facultad de dar la conformidad a la ejecución de los servicios prestados y ordenar el abono de los mismos, permanecerán en el órgano delegante.

III.– Eskuordetza hau indarrean sartuko da sinatzen de egunaren biharamunean.

Vitoria-Gasteiz, 2008ko urriaren 6a.

Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiko zuzendaria,
GUADALUPE CAMINO GARCÍA.

ERANSKINA

POLIZIAREN IKASTEGIAREN MENPEKO ERAIKIN ZERRENDA

20.– Arkaute, Herrizaingoa

III.– La presente delegación entrará en vigor a partir del día siguiente de su firma.

En Vitoria-Gasteiz, a 6 de octubre de 2008.

La Directora de la Academia de Policía del País Vasco,
GUADALUPE CAMINO GARCÍA.

ANEXO

RELACIÓN DE EDIFICIOS DEPENDIENTES DE LA ACADEMIA DE POLICÍA

20.– Arkaute - Interior